

PisuKideak helduarorako trantsizioan dauden gazteei zuzendutako **bizikidetza-alternatiba** bat da, etxebizitza lortzeko oztopoak gutxitzen dituena, eta proposamen irisgarria, eskuragarria eta **kulturartekoa** eskaintzen duena.

Zertan datza?

Hainbat jatorritako gazteek etxebizitza partekatzen duten esperientzia berritzailea da.

Talde tekniko baten laguntza, orientazioa eta ikuskapena ditu.

Sozializazioa eta gazteen arteko erreferentziazko harremanak bilatzen ditu, parte-hartzaileentzako garapen pertsonaleko, hazkundeko eta ikaskuntzako esperientziaren bidez.



Zer lortu nahi da?

Gizartearen **kohesioa eta kulturarteko bizikidetza** lortzen laguntzea, zehazki, Nafarroako gazteriarena, gizarte anitza eta askotarikoa den aldetik.

①

Jatorri autoktonoko eta migratzaileko ikasle gazteen arteko **hurbileko topaketa** ahalbidetzea.

②

Etxebizitza eskuratzeko **formula berriak, eskuragarriak eta sozialki konprometituak** ematea.


③

Gazte bakoitzaren bizi-proiektuaren **aukerak zabaltzea, beste errealitate batzuetara** hurbilduz.

Sartzeko baldintzak

Ikasleak
18 urtetik gorakoak
Konpromiso soziala
Esperientzia berrietarako gogoia
Malgutasuna
Egokitzeko gaitasuna

Metodologia



Kulturarteko bizikidetza ikasturte batean (irailetik irailera arte), talde eta figura profesional baten **laguntza teknikoarekin**: orientazioa, bitartekaritza eta **laguntza bizikidetza-prozesuetan**.

Prozesuaren **sistematizazioa, proiektu berritzaile honen eragina eta eraginkortasuna** baloratuz, **beste ekimen batzuetara transferitu** daitekeen ezagutza eraikiz.